

Udarregi Ikastola,
Irakaskuntza Kooperatiba Elkarte
Estatutuak

2004

Usurbilen, 2004ko abenduak 17

AURKIBIDEA

IZENA, XEDEA, IRAUPENA ETA JARDUERAKO LURRALDE-BARRUTIA, HELBIDEA ETA ERANTZUKIZUNA.....	3
BAZKIDEEZ.....	5
ELKARTEKO ORGANOEZ.....	16
ERREGIMEN EKONOMIKOAZ	33
LIBURUEZ ETA KONTABILITATEAZ.....	40
DESEGITEA ETA KITAPENA.....	41
AZKEN XEDAPEN BAKARRA.- IKASTOLAREN IRAKASLE ETA EZ-IRAKASLE DIREN LANGILEEN ORDAINSARIEN MUGAK.....	43

I. ATALA

IZENA, XEDEA, IRAUPENA ETA JARDUERAKO LURRALDE-BARRUTIA, HELBIDEA ETA ERANTZUKIZUNA.

Art. 1 -Izena-

UDARREGI IKASTOLA, IRAKASKUNTZA KOOP. E., “Gizarte-Ekimena”, izeneko eremu lokaleko Irakaskuntza-Kooperatiba bat eratzen da Usurbilen, Eusko Lege biltzarrak onartutako ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legeak eta ekainaren 29ko 1/2000 aurrekoa partzialki aldatzen duen Legeak ezarritako gainerako Printzipio, Erabaki eta legezko beste agindu aplikagarri eta Estatutu hauen menpean.

Art. 2 -Xedea-

Elkarteak era kooperatiboan bazkideen seme-alaben eta baita ikasleena ere, adinez nagusi direnean, hezkuntza, unibertsitarioak ez diren eremu eta maila guztietan erabakitzen du, eta era berean, zerbitzu osagarriak eta hezkuntzarekin zer ikusia dutenak ere burutu ditzake, baita irakaskuntza osatu eta errazteko balio duten zerbitzuak ere, irabazpide asmoak baztertuz eta itzulketa kooperatiboen banaketa eragotziz, guztia honako printzipioen arabera:

1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako hezkuntza sistemarekin elkarlanean, herriko hezkuntza eta euskal kultura areagotzea.
2. Euskararen ezagupena eta erabilpena bultzatzea eta garatzea herrian eta hezkuntza arloan.
- 3.- Bereak dituen bitartekoez eta Kooperatibak kudeatu ditzakeenez baliatuz, herritarren hezkuntza maila areagotzeko laguntzak kudeatzea.
- 4.- Antzeko hezkuntza eta kultura helburuak dituzten Usurbilgo beste Elkarte nahiz Talde ezberdinekin elkarlanean jardutea eta herriko kultur ekitaldiak bultzatzea eta antolatzea.
- 5.- Hezkuntza planetarako egokitzat hartzen diren kirol ekimenak antolatzea eta bultzatzea.
- 6.- Aipatutakoen antzekoak edo osagarriak diren edo haiekin lotuta dauden beste ekintza guztiak.

Art. 3 -Iraupena eta jarduerako lurralde-barrutia-

Bat.- Elkartearen iraupena mugagabeko denboraldirako ezartzen da.

Bi.- Kooperatibaren jardueraren lurralde-barrutia nagusiki Usurbilgo udalerriko lurraldeetara hedatzen da eta baita Batzar Orokorrak erabaki dezaken Euskal Autonomi Elkarteko beste edozeinetara ere. Eremu hau, Elkartek bere bazkideekin egin dezakeen kooperatiba-eragiketa alorreko jarduerari soilik dagokio eta ez Kooperatibak egin dezakeen beste edozein jarduerari.

Art. 4 -Helbidea-

Helbide soziala Usurbilen (20.170) finkatzen da, Gernika ibilbidea, 11 kalean eta honen aldaketa, udalerrri barruan, Artezkaritza Kontseiluak erabaki ahal izango du. Helbide sozialari buruzko aldaketa oro, 4/1993 Legearen 74. eta/edo 75. artikuluek diotenaren arabera burutuko da.

Art. 5 -Erantzukizuna-

Bat.- Zor sozialengatik bazkideen erantzukizuna solidarioa izango da, baina baltzu-kapitalera egindako beren ekarpenetara mugatua.

Bi.- Berreskuratu beharreko ekarpenen zenbatekoa zehaztu ondoren, baja hartzen duten bazkideek ez dute inolako erantzukizunik izango baja hartu aurretik Kooperatibak egin zituen zorrekiko.

II. ATALA

BAZKIDEEZ

Lehen Sekzioa.- Bazkideen onartzea.

Art. 6 -Zein pertsona izan daitezkeen bazkide-

Bat.- Bazkide erabiltzaileak.

- a) Kooperatiba honetako ikasle gisa onartuak izan diren seme-alaben edo tutoretzapekoen gurasoak edo familia-buruak, ordezkariak edo tutoreak.
- b) Adinez nagusiak diren ikasleak, Kooperatibak erabakiko dituen ikasturte eta baldintzetan.

Bi.- Bazkide laguntzaileak.

- a) Aurreko "Udarregi Patronatua" Elkartearen bazkide guztiak.
- b) Kooperatibako langileek bazkide-laguntzaile izaera bereganatu ahal izango dute.
- c) Edozein kausa bidezkoengatik, kooperatibak ematen dituen zerbitzuez baliatzeari uzten dioten bazkideek, bazkide laguntzaileen izaera lortuko ahal izango dute.
- d) Elkartearen Kooperatiba-xedea bete betean aurrera eramaterik izan gabe ere, xede horren lorpenean lagun dezaketen pertsona fisiko edo juridikoak, pribatuak zein publikoak. Bazkide izaera eskuratzeko inolaz ere ez da aski izango Elkarteari laguntza finantzaria emate hutsa.

Bazkide laguntzaileei buruzko onarpen erabakiak, baita behin-behinekoak izan daitezkeenak ere, administratzaileek hartuko dituzte.

Bazkide laguntzaileen botoen batura, Elkarte Kooperatiboak ez diren bitartean, ez da botoen heren bat baino gehiago izango Batzar Orokorretan ez eta Artezkaritza Kontseiluan ere.

Art. 7 -Onarpenerako betebeharrak-

Bat.- Bazkide erabiltzaile bezala onartua izateko, pertsona batek honako baldintzak bete beharko ditu:

- a) Adinez nagusi izatea edo nortasun juridiko adina izatea.
- b) Kooperatiban ikasle izateko adina duten seme-alabak edo babespekoak izatea edo Kooperatibak eskaintzen dituen irakaskuntza edo zerbitzuaren hartzaile izatea.
- c) Artezkaritza Kontseiluari bazkide izateko onarpen-eskabidea egitea.
- d) Estatutu hauetan bazkide mota honentzat finkatzen den partaidetza-konpromisoa onartzea.
- e) Estatutu hauen eta onartuak izaterakoan indarrean dauden gainerako akordioen ondorio diren betebeharrak sozial eta ekonomiko guztiak beren gain hartzea.

Bi.- Bazkide laguntzaile bezala onartua izateko, pertsona batek honako baldintzak bete beharko ditu:

- a) Adinez nagusi izatea edo nortasun juridiko adina izatea.
- b) Baltzu-kapitalari ekarpenak egiteko konpromisoak onartzea, eta bazkide mota honentzat Elkartearen Estatutuaren azaltzen den edota Batzar Orokorrek erabaki eta indarrean dagoen derrigorrezko hasierako ekarpena egitea.
- c) Estatutu hauetan bazkide mota honentzat finkatzen den partaidetza-konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren elkarte-organismoek balioz hartutako erabakiak bereak egin eta betetzea, eta baita indarrean dagoen kooperatiba-legedia, Elkartearen Estatutuak eta Barne-Arautegia ere.
- e) Artezkaritza Kontseiluari bazkide izateko onarpen-eskabidea egitea.

Art. 8 -Onarpenari buruzko erabakiak-

Artezkaritza Kontseiluari dagokio bazkideen onarpenari buruz erabakitzea.

Art. 9 -Onarpenerako prozedura-

Bat.- Eskaera idatziz egingo zaie administrariei eta hauek eskaria jasotzen dutenetik hasita, hirurogei egunetik gorakoa gabeko epea izango dute erantzuna emateko. Hau ezezkoa balitz, ez onartzeko arrazoiak eman beharko dira.

Bi.- Aipatutako epea igaro ondoren erabaki adierazpenik eman ez bada, onartu egin dela ulertuko da.

Art. 10 -Onarpenari aurkapenak-

Bat.- Erabaki ukatzaileari eskatzaileak aurka egin ahal izango dio Batzar Orokorraren aurrean, adierazpena hartu zuenaren biharamunetik hasi eta hogeit eguneko epearen barruan.

Bi.- Onarpenaren aldeko erabakiari aurka egin ahal izango zaio Batzar Orokorraren aurrean, adierazpena jakinarazi zenaren biharamunetik hasi eta hogeit egunetako epearen barruan, bazkideen % 20ak hala eskatuz gero.

Hiru.- Aurreko pasarteetan adierazten diren errekurtsioak, ospatuko den lehen Batzar Orokorrean erabaki beharko dira, Ohikoak nahiz Ohi kanpokoak nahiz Unibertsala izan, bozketa ezkutuaren bidez. Kasu batean zein bestean, aldez aurretik interesatuak dioena entzun behar izango da.

Bigarren Sekzioa.- Bazkideen betebeharrak eta eskubideak

Art. 11 -Bazkideen eskubideen eta betebeharren hasiera-

Artezkaritza Kontseiluak onarturiko bazkidearen eskubideak eta betebeharrak, erabakia hartu deneko egunean hasiko dira ondorioak sortzen.

Erabaki horri aurka egiten bazaio, baliogabetuta geratuko da eskudun organoak ebatzi arte.

Art. 12 -Bazkideen betebeharrak-

Bat.- Bazkideen betebeharrak dira:

- a) Dei egingo zaien Batzar Orokor eta gainerako organoen bileretara bertaratzea.
- b) Gobernu Organoek balioz hartutako akordioak betetzea.
- c) Kooperatibaren xedea osatzen duten jardueretan parte hartzea. Xede hauetarako, partaidetza gutxienerako arau edo modulu gisa, bazkide mota bakoitzerako, honakoak finkatzen dira:

- Bazkide erabiltzaileentzat: eskaintzen diren irakaskuntza-zikloetara edota eskatutako zerbitzuetara seme-alabak edo babespekoak Kooperatibara bidaltzea; uneoro finkatzen diren ekarpenak eta aldizkako kuotak ordaintzea.
 - Bazkide laguntzaileentzat: Kooperatibaren esanetara egotea laguntzeko eta elkartearen xedea garatu eta hobetzeko agintzen zaizkien eginkizunak burutzea.
- d) Kooperatibak garatu bide duen xede sozialarekin lehian dagoen jarduerarik ez burutzea, ez eta burutzen dituztenekin lankidetzan aritzea, administratzaileek berariaz horretarako baimena ematen duten kasuetan izan ezik.
- e) Karguren baterako izendatua izan bada, kargua onartzea, ez hartzeko bidezko kausa ematen ez bada.
- f) Jarduera espekulatiboak edo legeen aurkakoak garatzeko, bazkide izaeraz ez baliatzea.
- g) Bere ezagutzara helduko diren Kooperatibaren datuei buruz sekretua gordetzea, Ordenamendu Juridikoak finkatzen dituen mugen barruan, bai Kooperatiban dagoen bitartean baita baja eman ondoren ere. Azken kasu honetan norberak bere onurarako erabili ahal izango ditu, baina bere ohiko lanbideak nahitaezko beharrez eta bidezketasunez hala exijitzen duenean bakarrik.
- h) Kooperatiba barneko giro sozial egokia eta elkarbizitza adeitsu bat lortzen laguntzea.
- i) Bere Kooperatibaren gizarteko izen ona galtzea erakarri bide duen adierazpen publikorik berariaz ez egitea.
- j) Bazkide izatearen ondoriozko betebeharrak beren gain hartzea.
- k) Lege eta Estatutu aginduetatik sortzen diren gainerako betebeharrak betetzea.

Bi.- Bazkide guztientzat berdinak diren betebeharrak hauek, legezko eta estatutuetako arauak eta Kooperatibaren organoek balioz hartutako erabakiei jarraiki beteko dira.

Art. 13 -Bazkideen eskubideak-

Bat.- Bazkideen eskubideak dira:

- a) Kooperatibako organoetako karguak hautatzea eta horietarako hautatuak izatea.
- b) Batzar Orokorraren eta partaide diren gainerako organoen erabaki guztiak hartzerakoan, hitzez eta botoz parte hartzea.
- c) Estatutu hauen 14. artikulua arabera informazioa galdatzea.
- d) Beren eskubideez baliatu eta beren betebeharrak burutzeko beharrezko informazioa jasotzea.
- e) Baltzu sozialean egindako ekarpenak, dagokionean, eguneratzea eta itzultzea.
- f) Estatutu hauetan eta 4/1993 Legean Batzar Orokorrari esleitutako eskumenen esparruan, Kooperatiba-jardueraren politika, xedeak, baliabideak eta barrutia Batzar Orokorrean definitzea.
- g) Kooperatibaren jarduera eta zerbitzuetan parte hartzea, eta lehentasunez Heziketa eta Kooperatiba-Sustapenerako Fondoaren kargura hasitako ekintzetan.
- h) Legezko arauetatik eta Entitatearen Estatutuetatik eratorri bide diren gainerakoak.

Bi.- Bazkide guztientzat berdinak diren eskubide hauek, legezko eta estatutuetako araei eta Kooperatibaren organoek balioz hartutako erabakiei eta Barne Arautegiko araei jarraiki erabiliko dira.

Art. 14 -Informazio eskubidea-

Bat.- Bazkideek informazioa jasotzeko eskubidea legean, estatutuetan edo Batzar Orokorraren akordiotan oharmandakoaz baliatuz erabili ahal izango dute, horietan guztietan, egoki iritzitako bideak jarri ahal izango dira bazkideen eskubide hau bideratzea erraztu eta gauzatzeko.

Bi.- Bazkide guztiek eskubide dute:

- a) Kooperatibaren Estatutu Sozialen kopia bat eta, hala behar badu, Barne-jarduerako Araudiarena eskatzeko.
- b) Kooperatibako Bazkideen Erregistro-Liburua aztertu, eta eskaera arrazoitua egin ondoren, Batzar Orokorreko aktaren eta bertan hartutako erabakien kopia ziurtatua lortzeko, bai eta Bazkideen Erregistro-Liburuko inskripzioen ziurtagiria ere.

- c) Administratzaileek hartutako erabakien egiaztatutako kopia eskatzeko, erabakiok bazkideari eragiten badiote.
- d) Kooperatibarekiko duen egoera ekonomikoaren berri jasotzeko eskubidea. Informazio hori administratzaileek eman beharko diote eskatu eta hilabete igaro baino lehen.

Hiru.- Bazkide orok eskatu ahal izango dizkio idatziz Artezkaritza Kontseiluari beharrezkoak irudituko zaizkion argibideak eta informeak Kooperatibaren funtzionamenduaren eta/edo ondorioen edozein alderi buruz, eta erantzun beharko zaio, idatzia aurkeztu eta ondorengo hamabost egunak pasa eta gero ospatuko den lehen Batzar Orokorrean.

Lau.- Urteko kontuez edo edozein proposamen ekonomikoz deliberatu bide den Batzar Orokorrean, bazkideek hitzez eskatu ahal izango dituzte hauei buruzko azalpen eta argibideak; horretarako, kontuak agertzen dituzten dokumentuek agerian jarriko egon beharko dute Kooperatibaren egoitza sozialean, deialdiaren epean zehar bazkideek aztertu ahal izan ditzaten.

Epe honetan zehar eta Batzarra ospatu baino bost egun lehenagoko epean, aipaturiko azalpenak Batzarrean bertan erantzun daitezkeen, idatziz eskatu ahal izango dituzte.

Bost.- Aurreko atalean xedaturiko eskubidearen kalterik gabe, partaideen guztirako % hamar gutxienez ordezkatzeko duten bazkideek edozein momentutan eskatu ahal izango dute beharrezkoa iruditzen zaie informazioa. Artezkaritza Kontseiluak idatziz eman beharko die eskaturiko informazioa, hogeita hamar laneguneko epearen barruan.

Sei.- Dena den, gutxienez hiru hilez behin eta egokien irudituko zaion bidez, administratzaileek informatu egin beharko dituzte bazkideak Kooperatibako aldagai sozioekonomiko nagusienez, bazkideen bajak eta altak bereziki aipatuz.

Zazpi.- Administratzaileek informazioa emateari uko egin ahal izango diote, eskaria gehiegizkoa edo oztopagarria baldin bada edo informazioa ematea Kooperatibaren zilegizko interesentzako arriskutsua baldin bada bakarrik.

Administratzaileen ezetzari aurka egin ahal izango diote eskari-egileek ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legearen 49. artikulua eta Herri-Legezko Epai-bide Zibilaren Legearen 249-1-3. artikuluan zehaztutako prozeduraren arabera. Bidegabekeria eta kalterik gerta ez dadin, eskatutako datu guztiak Kooperatibaren egoitza sozialean emango dira, Artezkaritza Kontseiluaren Presidentea edo Idazkaria aurrean direlarik.

Zortzi.- Zehazki, Entitatearen desegitearekin, Kooperatibaren hezkuntza-jardueraren uztearekin, hezkuntza titularitatearen edo Kooperatibaren ondarea edozein organismo publiko nahiz pribaturi uztearekin loturik, Kooperatibak egindako edonolako gestio edo ekimenen berri eman beharko zaio hauek gertatu hala, Zaintza Batzordeari eta egingo den lehenengo Batzar Orokorrari.

Art. 15 -Borondatezko baja-

Bat.- Edozein bazkidek bere borondatez baja eman ahal izango du, edozein momentutan, aurrez Artezkaritza-Kontseiluari idatzi bidez adieraziz, hiru hilabetez lehenago. Artezkaritza-Kontseiluak epe hau murriz dezake, bidezko eta arrazoizko kausarengatik, gutxienera ere hilabete batetaraino, ezinbesteko kasuetan ezik.

Bi.- Aurrez abisu emateko epea ez betetzea, justifikatu gabeko bajatzat hartuko da, Kooperatibaren administratzaileek, kasuaren zergatiak aztertuta, bidezko akordio arrazoitua ematen ez badute. Guzti horretaz gainera, bazkideari Kooperatiban egin beharreko lan eta zerbitzu guztiak betearazteko aukera ere bada, eta baita kalte-ordainak eskatzeko aukera ere.

Hiru.- Borondatezko baja justifikatu gabekotzat hartuko da, bazkideak Kooperatibarekiko lehiaketa -aktibitateak hasteko asmorik badu.

Lau.- Kooperatibaren bateratzea edo banatzea, motaz aldatzea edo Kooperatibaren xedearen funtsezko aldaketa ematea, edo baltzu-domurako ekarpen berriak egin behar izatea gertatuz gero, akordio horien aurka botoa eman zuen edo, akordio hori hartu zen Batzar Orokorrera azaldu ez arren, horrekin ados ez dagoela adierazten duen edonoren baja justifikatutzat hartuko da.

Art. 16 -Bazkidearen derrigorrezko baja-

Bat.- Estatutu hauetan galdatutako beharkizunen bat galtzen duen bazkidea derrigorrez baja izango da.

Derrigorrezko baja administratzaileek erabakiko dute, interesatuari ofizioz entzun ondoren, beste edozein bazkideren edo interesatuaren beraren eskariz.

Bi.- Administratzaileen akordioa betebeharrekoa da behin Batzar Orokorra ados dela jakinaraziz gero, edo hari errekurtsioa aurkezteko epea bukatuz gero. Akordioa derrigorrez betebeharrekoa ez den bitartean, bazkideak Batzar Orokorrean botoa emateko eskubidea izango du.

Hiru.- Bazkide izateko baldintzak galtzen direnean derrigorrezko baja arrazoizkotzat hartuko da, baina ez baldintza horiek Kooperatibarekiko betebeharrak bete nahi ez direlako edo derrigorrezko bajaz behar ez bezala baliatu nahi delako galdu badira.

Lau.- Administratzaileek kalifikazio edo ondorioei buruz hartutako erabakiarekin ados ez dagoen bazkideak, Batzar Orokorraren aurrean errekurritu ahal izango du 4/1993 Legearen 27. eta 28. artikulua 2 eta 4 azpiatalen arabera.

Hirugarren Sekzioa.- Elkartearen diziplina-arauak

Art. 17 -Bazkideen falta motak-

Bat.- Falta sozialak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

a) Falta sozial arinak izango dira:

- Kooperatibaren ordenu onerako eta garapenerako ezarritako arauak ez betetzea.
- Justifikatu ezineko ezjakiteagatik estatutu-arautegiko aginduak eta funtzionamendu arauak, behin bederen, ez betetzea.
- Ekintza sozialetara eta bereziki Batzar Orokorrera, dei egin ondoren, bidezko kausarik gabe ez agertzea

b) Falta sozial larriak izango dira:

- Urte bete baino laburragoko denboraldiaren barruan falta arinak berriz egitea.
- Bazkidea kargu sozialetarako izendatua izan eta, Artezkaritza Kontseiluaren iritziz bidezko kausarik gabe, kargua ez onartzea edo kargua uztea.
- Kargu sozialetarako izendatua izan eta kargua arduraz ez betetzea.
- Estatutu hauetan aurreikusitako betebeharrak ekonomikoak garaiz ez betetzea.

c) Falta sozial oso larriak izango dira:

- Urte bete baino laburragoko denboraldiaren barruan falta larriak berriz egitea.
- Organo eskudunek balioz hartutako akordioak nabarmenki ez betetzea.
- Administratzaileen funtzio propioak bere esku hartzea.
- Kooperatibaren interes materialak edo gizarteko izen ona kaltetu ditzaketan erakoak diren jarduerak. Esate baterako; kompetentzia

aktibitateak, ekarpen eta prestazioetan iruzurra, entitatearen administratzaileekiko edo ordezkariakiko adeitasunik eza nabaria, eta antzeko beste zenbait.

- Kooperatibarekiko betebeharrak ekonomikoak behin eta berriz ez betetzea.
- Kooperatibarentzat erreserbatutako posta edo dokumentuen sekretua haustea, edo isilpe behartuko haren datuak arrotzei azaltzea.
- Kooperatibaren oinarri sozialen kontrako aurkakotasun etengabea eta proselitismo publikoa.

Art. 18 -Zigorrak-

Bat.- Falta arinengatik:

- Administratzaileek gauzatutako idatzizko ohartarazpena.

Bi.- Falta larriengatik:

- Urte beterainoko eperako, boto eskubidea galtzea.
- Hiru urtez administratzaile edo Kooperatibako beste edozein organo sozialeko kide izateko gaitasunik gabe uztea.

Hiru.- Falta oso larriengatik:

- Hiru urtetarainokoa izan daitekeen eperako boto eskubidea eta administratzaile edo Kooperatibako beste edozein organo sozialeko kide izateko gaitasunik gabe uztea.
- Kooperatibatik egozteak.

Art. 19 -Zigor prozedurak-

Bat.- Hutsegiteengatik bazkidea zigortzeko, dagokion espedientea izapidetuko da beti. Falta-espedienteetan dokumentu guztien bi ale beteko dira eta hauetako bat bazkide bakoitzaren espedientean artxibatuko da.

Espedientea honako arauen arabera burutuko da:

- a) Hutsegite arinetan, Artezkaritza Kontseiluak, hutsegitetzat har daitekeen gertakari edo ez-egitearen berri izatean, bere partaideen artean bideratzaile bat izendatuko du. Honek, hala badagokio, erruztatutako bazkidearen aurka kargu-orrria idatziko du. Bazkideari, hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa eta dagokion zigor-proposamena idatziz jakinaraziko zaio. Bazkideak, berez, Artezkaritza Kontseiluari deskargu-plegua idatziz aurkeztu ahal izango dio, bideratzailearengandik jakinarazpena jaso duenetik hamar eguneko epearen barruan. Une honetatik hasita, Artezkaritza Kontseiluak hilabeteko epea izango du hutsegitearen kalifikazioaz eta dagokion zigorraz erabakia hartzeko, baina

beti, aldez aurretik erruztatutako bazkideari audientzia eman behar izango dio. Audientzia fasea beteta, edo bazkidea audientziara etortzen ez bada, orduantxe Artezkaritza Kontseiluak bere ebazpena emango du eta kooperatiba mailan behin-betikoa izango da. Ebazpena aurkatu ahal izango da 4/1993 Legeak bere 49. artikuluan dioen prozesu-tramitea jarraituz.

- b) Falta larri eta oso larrietan, prozedura hutsegite arinentzat finkatutako bera da, baina oraingoan, Artezkaritza Kontseiluaren akordio zigortzailearen aurka errekurtsioa jarri daiteke eta, era honetara, kooperatiba barneko bidea ez du agortzen. Bazkideak, zigorraren jakinarazpena izan zuenetik hogeita hamar eguneko epearen barruan, akordio zigortzailearen aurka errekurtsioa aurkeztu dezake Batzar Orokorraren aurrean. Batzar Orokorraren ebazpenak kooperatiba barneko bidea agortzen du. Nolanahi ere, bazkideak ebazpena aurkatu ahal izango du 4/1993 Legeak bere 39. artikuluan dioen prozesu-tramitea jarraituz..

Bi.- Hutsegiteen preskripzio-epeak, hilabete bat, bi hilabete eta hiru hilabetekoa izango dira, hutsegite arin, larri eta oso larri gisa sailkatutako kasuetarako, hurrenez hurren.

Preskripzio-epea Artezkaritza Kontseiluak hutsegitea egin izanaren berri izan duenetik zenbatuko da, eta nolahi ere, hutsegitea egin zenetik hamabi hilabete betetzean. Preskripzio-epea prozedura zigortzaileari hasiera ematen zaionean eten egiten da, eta berriro martxan jartzen da lau hilabeteko epearen barruan ebazpenik hartu edota jakinarazten ez bada.

Hiru.- Zigorraren izaera betearazlea.

Espedientaturiko bazkideak, dagokion errekurtsorako eskubidea bere epean erabili ez eta epaitza apelaezinak hartuz gero, biharamunetik aurrera izango dira zigor guztiak betebeharrekoak.

Lau.- Zigorraren deuseztapena

Egozpen kasuan ezik, interesatuek hala eskatuz gero, Artezkaritza Kontseiluak deuseztatu ahal izango ditu betetzeko geratzen diren zigor parteak edo iraganeko zigorren oharpenak.

Art. 20 -Egozpena edo kanporatzea.-

Bat.- Egozpena Estatutuetan aurreikusitako falta oso larriengatik erabaki ahal izango dute administratzaileek, interesatuaren deskargua barne izango duen espedientea aurrez izapidetu ondoren. Bertan dauden administratzaileen gehiengo sinplearen botoez hartu beharko den egozpen-akordioa espedienteari hasiera ematea agindu zenetik kontatuz lau hilabeteko epearen barruan eman behar izango

da. Epe hau igaro eta, akordiorik ez balego, espedientea besterik gabe artxibatuko da.

Bi.- Egozpen akordioaren kontra bazkideak errekurtsua aurkeztu ahal izango du Batzar Orokorraren aurrean, jakinarazpena hartu zuenetik hogeita hamar egunetako epearen barruan. Batzarrak erabaki arte, akordio hori ez da eraginkorra izango.

Batzar Orokorraren aurrean ezarritako errekurtsua, erruztatuarekin aldez aurretik hitz egin ondoren, errekurtsua aurkeztu denetik egingo den lehen Batzar Orokorrean ebatziko da, isilpeko bozketa bidez eta gai-zerrendan berariazko gai bezala agertuz.

Hiru.- Batzar Orokorraren berrespenaren jakinarazpena jasotzen denetik edo errekurtsua jarri gabe, berau ezartzeko epea amaitzen denetik aurrera, egozpen-akordioa eraginkorra izango da.

III ATALA

ELKARTEKO ORGANOEZ

Art. 21 -Elkarteko organoak-

Bat.- Kooperatibako organoak hauek izango dira:

- a) Batzar Orokorra.
- b) Artezkaritza Kontseilua.
- c) Zaintza Batzordea.

Lehen Sekzioa. Batzar Orokorrak.

Art. 22 -Kontzeptua eta eskumenak-

Bat.- Bazkideek osaturiko Batzar Orokorra da borondate sozialaren adierazpen-organoa nagusia da, eta indarrean dagoen legediak eta Estatutu hauek berari esleitzen dizkioten gaietan erabakiak hartzen ditu.

Bazkide guztiak, baita disidenteak eta bertan ez direnak ere, Batzar Orokorraren erabakien menpean geratzen dira.

Bi.- Kooperatibaren arazo sozial guztiak eztabaidatu ahal izango dira Batzar Orokorrean, ondorengo akordio hauek hartzea berari bakarrik dagokiolarik:

- a) Administrazioaileak, Zaintza Batzordeko kideak eta Likidatzaileak boto sekretuaren bidez izendatu eta ezeztatzea eta horiei erantzukizunak eskatzea.
- b) Elkartearen kudeaketa aztertu, urteko kontuak onartu, soberakinak nola banatu eta galerak nola egotzi erabakitzea.
- c) Derrigorrezko ekarpen berriak, kapitalean egindako ekarpenen interesak eta sarrerako edo aldikako kuotak zenbatekoak izango diren finkatzea.
- d) Zor agiriak, partehartze-agiriak edo partehartze agiri bereziak jaulkitzea.
- e) Kooperatibaren barne arautegia onartu eta aldatzea.
- f) Elkartea beste batzuekin bateratu, bereiztu edo desegitea.

- g) Bigarren eta ondorengo mailetako Kooperatibak edo kreditu Kooperatibak, Kooperatiba bazkunak eta antzeko erakundeak eratzea, eta bai horiek elkarri eratzikitzea.
- h) Kooperatibaren egitura ekonomikoan, eratzailan edo funtzionalean funtsezko aldaketak eragiten dituzten erabakiak onartzea. Funtsezko aldaketak honakoak dira:
- Kooperatibaren aktiboen erdia baino gehiago besterentzea.
 - Helburu soziala aldatzea, horrenbestez, Kooperatiba sorrarazi zuten jarduerak desagertzea badakarte.
 - Kooperatibaren edozein lantegi besterentzea.
- i) Estatutuak aldatzeko erabakia.
- j) Kontu ikuskatzaileak izendatu eta kargutik kentzea. Hau bidezko arrazoiren bat dagoenean baino ezin izango da egin.
- k) Legediak exijitzen dituen gainerako guztiak.
- l) Bere menpeko batzordeak izendatu eta deuseztatzea.

Hiru.- Batzar Orokorrak Kooperatibarentzat interesgarriak diren gaiak eztabaidatu ahal izango ditu, eta beste organo sozial baten eskumen eksklusiboak ez diren gaietan soilik hartu ahal izango ditu derrigorrezko erabakiak.

Lau.- Artikulu honen eta legediaren arabera Batzar Orokorrari dagozkion aginpideak eskuz aldaezinak izango dira, artikulu honen Bi puntuko g) pasartean adierazten den Kooperatibak bateratzeko prozesuetarako aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Art. 23 -Batzar Orokorraren deialdia-

Bat.- Ohiko nahiz Ohi kanpoko Batzar Orokorrerako deialdia administratzaileek egingo dute.

Bi.- Ohiko Batzar Orokorrerako deialdia urtean behin egingo da, ekitaldi soziala itxi ondorengo lehen sei hilabeteen barruan, kudeaketa soziala aztertu, bidezko bada urteko kontuak onetsi, soberakinak edo galeren banaketa erabaki eta Gai-zerrendan barne hartutako gainerako gaiak aztertzeko xedez.

Gai-zerrendan, Batzar Orokorraren eskumeneko beste edozein gai sartu ahal izango da. Lehen sei hilabeteak igaro eta deialdirik ez bada egin, edozein bazkidek notariren bidez edo beste edozein errekerimendu sinesgarri erabiliz, deia egin dezatela eskatu

ahal izango die administratzaileei. Errekerimendua jasotako egunetik hamabost egun igaro eta deirik egiten ez badute, bazkideak batzarrerako deia egin dezala eskatu ahal izango dio elkartearen egoitza dagoen lekuko lehen instantziako epaileari. Honek deia egin eta batzarreko burua nor izango den erabakiko du. Batzar orokor hau epez kanpo deitutakoa izan arren, ohikoa izango da.

Hiru.- Aurreko puntuan arautzen ez diren Batzar Orokorraren batzarraldiak, ohi kanpoko izaera izango dute, eta noiznahi bilduko da, administratzaileek deia eginez edo Zaintza Batzordeak nahiz boto sozialen gutxieneko %20a ordezkatzan duten bazkideek eskatuz. Eskaera administratzaileei errekerimendu sinesgarri batez egin beharko zaie, eta eskaera horrek aztergaiak eta eztabaidatu beharreko proposamenen gai-zerrenda barneratuko du. Eskaera jaso denetik hogeita hamar eguneko epean batzarrerako deialdia egingo ez balitz, deialdi judiziala eskatu ahal izango da aurreko apartatuak begiztatzen duenaren arabera.

Lau.- Boto sozial guztien ehuneko hamar gutxienez ordezkatzan duten bazkideek, aztergai zerrendan punturen bat sartzea eskatzeko eskubidea izango dute, deialdiaren iragarkia argitaratuz geroko bost egunetan, administratzaileei zuzenduriko idatzi bidez. Administratzaileek puntu hauek gai-zerrenda berrian sartu beharko dituzte legez ezarritako publizitatea emanaz, gutxienez Batzarra burutuko deneko eguna baino lau egun lehenago.

Bost.- Batzarrerako deia Elkartearen helbide sozialean eta dituen ikastetxe desberdinetako iragarki tauletan iragarri eta bazkide bakoitzari adierazpen idatzi pertsonala bidaliz egingo da. Era berean, Gipuzkoako lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batetan argitaratuko da.

Deiak, gutxienez ere adieraziko ditu data, bilkura lekua, lehen, eta bigarren deialdien orduak, bien artean gehienez ordu beteko aldeaz, eta eguneko gai-zerrenda zehatz eta xehea azalduko du.

Deialdiaren argitarapena edo jakinarazpena, gutxienez hamar egun eta gehienez hirurogei egun aurrez egin beharko da. Aztergaien artean bazkideren baten bajari buruzko erreklamaziorik balego, lehenik gai hau aztertuko da.

Sei.- Artikulu honetako aurreko puntutan erabakitakoaren kaltetan ez bada, deialdirik gabeko batzarra osatu ahal izango da, bazkide guztiak bilduta edo ordezkatuta egonik, aho batez Batzar Unibertsala eratzea erabakitzen baldin badute; guztiek onartu eta izenpetu beharko lukete gai-zerrenda eta bertaratutakoena, baina gero ez lukete guztiek bertan geratu beharrik izango.

Art. 24 -Batzarraren funtzionamendua-

Bat.- Batzar Orokorra, Unibertsala denean izan ezik, egoitza soziala finkatuta dagoeneko herrian edo administratzaileek izendatutako beste edozein lekutan egingo da, azken hau beti, justifikatutako arrazoirik baldin badago.

Bi.- Batzar Orokorra balioz eratuta geratuko da, lehen deialdian botoen gehiengoa bertan edo ordezkatuta dagoenean, eta bigarren deialdian gutxienez boto sozialen ehuneko hamar edo ehun boto bertan edo ordezkatuta daudenean. Batzar Orokorraren deialdia egitea erabaki zenean bazkide zirenek bertaratzeko eskubidea izango dute.

Hiru.- Batzar Orokorreran bazkide bat bere ezkonlagunak, bizilagunak, edota adinez nagusi edo burujabe diren seme/alabek ordezkatu ahal izango dute. Horretarako ezkontza-loturaren, bizikidetz-egiaztagiriaren, seme/alaba adinez nagusi edo burujabe izanaren kreditazioa aurkeztu eta Kooperatibaren elkarte-dokumentazioan azaldu beharko du.

Nolanahi ere, Batzar Orokorrak bakoitzerako ordezkapen-agiria idatziz egin beharko da, bazkidearen baimena eta sinadurarekin, eta ezkonlagunaren, bizilagunaren, edota adinez nagusi edo burujabe diren seme/alaben berariazko onarpen eta sinadurarekin.

Aurreko artikuluko bosgarren apartatuko azken pasartean aipatzen den kasurako, ordezkariak egiaztatuko duen idatziak Batzarrerako finkatutako eguneko gai-zerrenda jaso beharko du.

Bazkideek ezin izango dute bi ordezkariak baino gehiago eraman, bereaz gainera, hau nahiz pertsonala izan nahiz pertsona juridiko baten edo familia baten ordezkari gisa izan.

Ordezkatza ezeztatu daiteke. Ordezkatutakoa Batzar Orokorrera joaten bada, balioa kenduko dio ordezkariari.

Lau.- Batzar Orokorrerako mahaiburu Artezkaritza Kontseiluko lehendakaria izango da; hau ez balego, Estatutuen arabera honen funtzioak betetzen ari dena, edo Batzarrak berak hautatuko duen bazkidea. Mahaiburuari dagokio deliberazioak zuzentzea, bere erantzukizunpean desbideraketarik gerta ez dadin arduratzea edo gai-zerrendan ez dagoen gairik erabakitzeko ez onartzea, Batzarrean ordena mantentzea eta formalitate legalak bete daitezzen zaintzea. Idazkari gisa, Artezkaritza Kontseilukoak jardungo du, edo hau ez balego, bere ordekoak edo Batzarrak hautatuko duenak.

Eguneko gai-zerrendan gairen bat balego mahaiburuari edo idazkariari zigorra ezartzea dakarrenik, Batzar Orokorrak izendatuko ditu funtzio hauek beteko dituztenak.

Bost.- Gai-zerrendan jaso gabeko gaiei buruzko erabakiak baliorik gabekoak izango dira, Euskadiko Kooperatiba Legean berariaz dena delako akordio hartzea baimentzen den kasuetan izan ezik.

Sei.- Administratzaileek Batzar Orokorretara joan beharra izango dute.

Zazpi.- Idazkariak batzarraldiko akta idatziko du, bertan honako hauek adieraziz: burutzapen lekua eta data, deialdiaren data eta modua eta testu osoa, beren izenean edo besteren baten ordeztu diren bazkideen kopurua, lehen deialdian edo bigarrenaren den, eztabaidatutako gaien laburpena, aktan ager daitezkeen eskaera eginez burututako esku hartzeak, hartutako erabakien edukia, bozketen emaitza eta aktaren onespena bilera amaitzerakoan gertatu denean.

Akta Batzarrak berak onetsi ahal izango du bilkura amaitutakoan, edo hala izan ezean, hamabost eguneko epearen barruan, lehendakariak eta bilkuran izendatutako bi bazkidek onetsia, idazkariarekin batera izenpetuz.

Edozein bazkidek edo Batzar Orokorretara azaldutako partaidek, aktaren testu osoaren eta hartutako erabakien ziurtagiriak eskuratzea eskatzeko eskubidea izango dute. Akten ziurtagiriak, hauek egiteko datan, idazkari denak egingo ditu, lehendakariaren ontzat emanik.

Zortzi.- Erabakiek, hartzen diren unetik bertatik sortuko dituzte ondorioak. Inskribagarriak diren erabakiak Kooperatiben Erregistroan aurkeztu beharko dira, akta onetsi eta ondorengo hogeita hamar eguneko epean.

Art. 25 -Boto eskubidea-

Bat.- Bazkide bakoitzak boto bat izango du.

Bi.- Bazkide laguntzaileen multzoak, elkarte kooperatiboak ez diren bitartean, ez du botoen heren bat baino gehiago izango Batzar Orokorretan.

Hiru.- Bazkideak boto eskubidea ezin izango du erabili, interes gatazka izan daitekeen kasuetan:

- a) Hartu beharreko erabakiak zuzenean eta berari soilik badagokio, adierazitako gehiengoaren parte den kasutan izan ezik.
- b) Kooperatibak bultzatutako erantzukizun ekimen baten subjektu denean.

Art. 26 -Gehiengoak-

Bat.- Batzar Orokorraren erabakiak, balioz bertan eman diren botoen eta ordezkatuaren gehiengo soilaz hartuko dira, boto zuriak eta abstentzioak kontutan hartu gabe, Legeak edo Estatutu hauek gehiengo sendoagoa ezartzen dutenean ezik.

Bi.- Bertan diren botoen eta ordezkatuaren bi herenen gehiengo behar izango da ondorengo akordio hauek hartzeko:

- a) Obligazioen jaulkipena.
- b) Barne arautegia onartzea eta aldatzea.
- c) Kooperatibaren eraldaketa, bateratzea, zatitzea eta desegitea, beti ere Batzarrean daudenen eta ordezkatuakoen botoen kopurua Kooperatibako boto guztien ehuneko hirurogeita hamabost baino txikiagoa baldin bada.
- d) Bigarren edo beste graduko edo Kredituko Kooperatibak sortzea, edo haietara atxikitzea.
- e) Artezkaritza Kontseiluko partaideen eta Zaintza Batzordeko partaideen erantzukizunaren akzioa erabiltzea, Batzar orokorraren gai-zerrendan azaltzen ez denean.
- f) Estatutuak aldatzea.
- g) Obligaziozko ekarpen berrien bidez, kapital zabalkuntza erabakitzea.
- h) Baltzu-kapitalaren beherapena erabakitzea, aipaturiko beherapena legezko edo estatutuetako xedapenetan ezarririk ez datorrenean ezik.
- i) Estatutuetan ezarririk ez datozen ekarpenak jardueratan, produktutan edota zerbitzutan bazkideei exijitzea.
- j) Estatutu hauetan berariaz hala xedatzen den gainerako beste kasuetan.

Hiru.- Artezkaritza Kontseiluko kideak bere kargutik kentzeko erabakia hartzea eguneko gai zerrendan agertzen ez denean, bertaratuen eta ordezkatuakoen botoen bi herenak beharko dira.

Art. 27 -Batzar Orokorreko erabakien aurkatzea-

Bat.- Batzar Orokorraren erabakiak legearen nahiz estatutuen aurkakoak edo bazkide baten, batzuen nahiz beste pertsona batzuen mesedetan, Kooperatibaren xedeen aurkakoak baldin badira, aurkatu egin ahal izango dira.

Legearen aurkako erabakiak baliorik gabeak izango dira; aurreko zenbakian aipatzen diren besteak, berriz, baliogabegarriak.

Baliorik gabe utzitako akordioa edo baliozko beste baten bidez ordezkaturako erabakiak ezin izango dira aurkatu.

Bi.- Honako hauek baliorik gabeko erabakiak aurkatzeko ekintzak eragin ditzakete:

- a) Bazkide guztiek.
- b) Administratzaileek.
- c) Zaintza Batzordeko partaideek.
- d) Legezko interesa duen beste edonork.

Aurkatzeko ekintza urte beteko epean baliogabetuko da.

Hiru.- Honako hauek erabaki baliogabegarriak aurkatzeko ekintzak eragin ditzakete:

- a) Batzar Orokorreko aktan erabakiarekin bat ez zetozeला adierazi zuten bertaratutako bazkideek.
- b) Bertaratu gabekoek, edo legez kontra boto eskubiderik gabe gertatu zirenek.
- c) Administratzaileek.
- d) Zaintza Batzordeko partaideek.

Berrogei egunekoa da era honetako ekintza bat aurkezteko epea. Atal honetan eta aurrekoan aurkatzeak egiteko jarritako epemugak, erabakia hartzen denetik hasita edo, erabakia inskribagarria bada, Euskadiko Kooperatiben erroldan inskribatzen deneko datatik aurrera zenbatuko dira.

Lau.- Aurka-egite jarduerak 4/1993 Legearen 39-7 artikulua dioenaren arabera tramitatuko dira.

Bost.- Aurkatzea estimatu duen epaiak bazkide guztiengan eragina izango du, baina ez die eragingo aurkatutako erabakiaren ondorioz eta asmo txarrik gabe, beste batzuk lortutako eskubideei. Aurkatutako erabakia Kooperatiben Erroldan jasota balego, indarrrik gabe utz dadila erabakiko luke epaiak.

Bigarren Sekzioa. Artezkaritza Kontseiluaz

Art. 28 -Izaera eta ahalmenak-

Bat.- Artezkaritza Kontseilua, Kooperatibaren ordezkotza, gobernu eta gestio organoa da, eta bere eskumenez gain, Legeak edo Estatutu hauek berariaz beste organo soziali esleitzen dizkietenak izan ezik, gainerako guztiak burutuko ditu.

Bi.- Artezkaritza Kontseiluari dagozkio berariazko ahalmen hauek:

- a) Bazkideen onarpenarekin eta bajarekin zerikusirik duten arazo orotaz, harik eta burutara eraman arte eta haien modalitate guztietan erabakitzea, Estatutu hauetan aurreikusitakoaren arabera.
- b) Erantzukizun osoz Kooperatiba ordezkatzea, delegatzeko ahalmenarekin, edozein motako ekintza eta kontratutan, eta bereziki, parte hartuko duen entitateen Batzar Orokorretan.
- c) Erantzukizun duten karguak izendatzea eta halaber, hauei kargua utzaraztea eta hauen ahalmenak, betebeharrak eta ordainketak finkatzea. Halakorik balitz, hauen kontrako erantzukizun-akzioak erabiltzea.
- d) Langileria izendatu, lan taldeak osatu, langileriaren eginkizunak finkatu eta hauen baldintza ekonomikoak ituntzea eta halaber, hauen lankidetzaren baldintzak eta erak finkatzea.
- e) Kooperatibaren martxa eratu, zuzendu eta begiratzea eta Batzar Orokorrari urteroko gestio-planak eta epe luzerako plan estrategikoak aurkeztea, Kooperatibaren politika eta estrategia orokorrak proposatuz.
- f) Administratzaileen uko-egitez, bete gabeen ordezkapenak eta, oro har, organo beraren barne-funtzionamenduaren arauketaz egokia dena erabakitzea, eta halaber, gerta daitezkeen eta/edo berari dagozkion akordioen baliogabetasunaren akzioak eragitea.
- g) Zuzendaritza Batzordearen arauketa onartu, aurrez berari entzunez edo bere proposamenaz.
- h) Estatutuetan eta barne arautegian egoki irudituko zaizkien aldaketak Batzar Orokorrari proposatzea.
- i) Estatutuak eta arautegi-aginduak egoki aplikatzeko behar diren araudi funtzionalak nahiz Batzarraren akordioak burutzeko eskatuak ere onartzea.

Era berean, beren garrantziarengatik haren erabakiaren esku jarri behar dituela ulertzen dituenak.

- j) Xede sozialaren garapenerako beharrezkoak edo komenigarriak liratekeen ekintzak burutzea eta kontratuak egitea, ondasun higiezinak erosteaz edo saltzeaz, eskubide errealak eratzeaz, hipotekak barne, eta errentamenduko berezia ere, direnak salbuetsi gabe, eta Estatutu hauek kooperatibari zilegi uzten dizkieten negozio eta eragiketa molde guztiak ebatzea.
- k) Kooperatibari komeni liezazkioken eta Batzar Orokorrari erreserbaturik ez dauden kreditu, mailegu eta sinadura-garantiaren eragiketak erabakitzea.
- l) Entitate publiko eta pribaturen aurrean abalak eman, eta halaber, erosi, saldu, harpidetu eta gordailatu zuzenbidez ametitutako edozein moldetako titulu, zor publiko edo balore higigarriak nahiz higiezinak egoki iruditzen zaion eran afektatu ere egin ditzakeelarik.
- m) Ekarpinak harpidetzeko eta Bonoak eta Obligazioak jaulkitzeko beharrezkoa dena erabakitzea, Batzar Orokorrak aurrez erabakia lukeenaren ildotik.
- n) Fondo erabilgarrien inbertsio zehatza erabakitzea, eta era berean Erreserbako eta Heziketa eta Giza Sustapenerakoena, Batzar Orokorraren akordioak errespetatuz, aurrekontuak eratzea, gastuak baimentzea eta Kooperatibaren ahalduak eta ordezkariak izendatzea, kasu bakoitzean komenigarri iruditzen zaizkion ahalmenak haien esku utziz.
- o) Ohiko Batzar Orokorrari ekitaldiaren amaieran, urtarrilaren 1etik abenduaren 31a arte doalarik, enpresa gestioaren azalpenerako txostena, kontuak eta balantzea aurkeztea, eta soberakin netoen banaketa edo halakorik balitz, galeren egozketa proposatzea.
- p) Batzar Orokorrak dei egitea, bere prozesamenduan sortuko diren arazoak konpontzea eta erabakiak gauzatzea.
- q) Epaitegi eta Auzitegi arrunt edo bereziren aurrean eta Estatuaren eta Lurralde-Administrazio Autonomoen, Lurraldeen eta Udalerrien bulego, agintari korporazio edo organismoen aurrean, Kooperatibari dagozkion eskubideak edo akzioak erabiltzeari buruz komenigarri iruditzen zaiena erabakitzea, eta halaber errekurtsio arrunt nahiz bereziak jartzeari buruz, gai hauetan Kooperatibaren ordezkariak eta defentsa eraman dezaten ordezkariak, prokuradoreak edo letraduak izendatuz, hauei ahalmen egokiak behar den eran emanaz, baita adiskidetzetan, espedienteetan, auzitan, erreklamazioetan, errekurtsotan edo edozein moldetako jarduketatan eta

edozein prozedura-egoeratan, hau uztea eskatzeko eta beharrezkoa den orotarako, baita zabaltasun edo judizialki amore emateko ere.

- r) Fondo eta ondasun sozialez xedatzea, hauek erreklamatzeko, jasotzea eta kobratzea, nahiz partikularrengandik nahiz bulego publikoetatik, Kutxa Orokorrean eta interes sozialei komeni zaien lekuan gordailuak eratuz edo atereaz. Banku kontu-korronteak eratzea, nahiz eskudiruz, kredituz nahiz balorez, eta hauetatik eskudirua edo baloreak ateratzea, eta, oro har, banku-eragiketa molde oro egitea entitate nazional edo atzerritarrekin, baita "Banco de España"n ere. Korrespontsalen eskumendean dauden Kooperatibaren fondo eta ondasunez xedatzea. Kanbio-letrak libratu, endosatu, abalatu, onartu, negoziatu eta ordaintzea.
- s) Ondorio zehatzetarako edo negozio sozialaren arlo konkreturen bat gestionatzeko zenbait pertsonari ahalordeak ematea.
- t) Kooperatibaren lehiaketa- eta desegite-aitorpenak Batzar Orokorrari proposatzea, eta prozedura horretan bere eskumeneko diren fase ezberdinak betetzea.
- u) Estatutu hauen interpretazioaz sor daitezkeen zalantzak erabakitzea eta egon daitezkeen hutsuneak betetzea, ospatuko den lehenengo Batzar Orokorrari aditzera emanez.
- v) Estatutu hauetan bereziki esleitutakoak.

Hiru.- Artezkaritza Kontseiluaren ahalmenak ez dira aipatuekin amaitzen, eta beraz, ez dira hauetara mugatzen Kooperatibaren interesen defentsarako eta beronen gobernu, kudeaketa eta zuzentzarako beharrezko dituen eskumen ugarien zerrenda, beste organo batzuetarako berariaz izendatuta daudenak ezik beste edozein bere gaia izan baitaiteke.

Art. 29 Artezkaritza Kontseiluaren eraketa eta hautaketa-

Bat.- Artezkaritza Kontseilua bederatzi partaide titularrek osatuko dute, eta hauetako lauk Lehendakari, Lehendakariorde, Idazkari eta Diruzain karguak beteko dituzte. Hauek izendatzerakoan, bi bokal ordezkari hautatuko dira, eta titularrak ordezkariak dituzte, behin-betiko jabegabe kasuan, estatutuen arabera geratzen zaien denboran.

Bi.- Artezkaritza Kontseiluko partaideak Batzar Orokorrak hautatuko ditu, isilpeko bozketa bidez, bazkide mota ezberdinetan balioz emandako gehienezko boto kopuruaz, hurrengo paragrafoan zehazten denaren arabera.

4/1993 Legearen 45.4 artikulua dioenaren arabera, Artezkaritza Kontseilua bost bazkide erabiltzailek eta lau bazkide laguntzailek eta ez-bazkidek osatuko dute. Horrelakorik ezan ezean, Estatutu hauen 6. artikulua arautzen dituen bazkide-klaseen arabera, eserleku horiek bazkide erabiltzailek euron artean hautatutakoak okupatuko dituzte. Hautaketa isilpeko bozketa partzialaz egingo da, dagokion Batzar Orokorrean, bazkide klase ezberdinen artean, bertaratutakoek edota balioz ordezkaturakoek emandako botoen gehiengo erlatiboaz.

Aldi berean ordezeko bi kontseilari hautatuko dira; horietako bat bazkide erabiltzaile izanen da, eta bestea bazkide laguntzaile ala ez bazkide. Horrelakorik izan ezean, bigarren ordezkoa ere bazkide laguntzaile izango da.

Artezkaritza Kontseilua partzialki berriztatuko da, urtero herena. Lehenengoan hiru bazkide titular berriztatuko dira, bi bazkide erabiltzaile eta bazkide laguntzaile bat ala ez bazkidea hain zuzen, eta horrelakorik izan ezean, beste bazkide erabiltzaile bat eta ordezeko kontseilari erabiltzaile bat. Bigarrenean beste hiru partaide titular berriztatuko dira, bi bazkide erabiltzaile eta bazkide laguntzaile bat ala ez bazkide, eta horrelakorik izan ezean beste bazkide erabiltzaile bat, eta ordezeko partaide bat, hain zuzen, partaide laguntzaile bat ala ez bazkidea. Hirugarrenean gainerako partaide titularrak berriztatuko dira. Eta datozen berriztapen partzialetan hurrenez hurren. Lehen berriztapena zozketaz egingo da, Artezkaritza Kontseiluko bazkide-klase ezberdinen artean, arestian aipatu moduan.

Hiru.- Gauzatuko duen lehen bileran, Artezkaritza Kontseiluak bere kideen artean Lehendakaria, Lehendakariordea, Diruzaina eta Idazkaria hautatuko ditu. Gainerakoak bokalak izango dira.

Lau.- Administratzaileen izendapenak haren onarpenaren uneaz gero, ondorioa sortuko du eta Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da, biharamunaz geroko hogeita hamar eguneko epearen barruan.

Bost.- Batzar Orokorrak Artezkaritza Kontseiluko partaideen kargugabetzea erabaki ahal izango du, baldin eta gai hori eguneko gai-zerrendan ageri bada, edota deialdiko gai-zerrendan ez egon arren, bertan diren ordezkaturakoen botoen bi herenek kargugabetzearen aldeko botoa ematen badute.

Art. 30 -Bateraezintasunak-

Ezin izango dute Artezkaritza Kontseiluko partaide izan:

- a) Beren edo besteren kontura Kooperatibaren konkurrentziazko jarduerak, edo haren interesen aurkakoak, egiten edo egikaritzen dituztenek.

- b) Gaitasun gabe utzitakoak Lehiaketa legearen baitan lehiaketaren kalifikazioko ebazpenean finkatutako gaitasungabetze aldia amaitu ez den bitartean, adinez txikiek eta gaitasun gabetuek, kargu publikoetarako ezgaitzea beren baitan daramaten zigorretara kondenatuak izan direnek eta beren karguaren arazoirengatik irabazpide ekonomikozko egin ezin dutenek.
- c) Kooperatibaren jarduera propioekin zerikusia duten zerbitzuak beren kargura dituzten funtzionario eta Administraritzaren langileek.
- d) Zaintza Batzordeko, Errekurtso Batzordeko, Zuzendari-Gerentea eta Zuzendaria.

Art. 31 -Artezkaritza Kontseiluaren funtzionamendua-

Bat.- Artezkaritza Kontseilua hiru astetik behin bilduko da, edo deialdi berezitan bere kideetariko edo Zuzendari-Gerentearen eskaera justifikatuaren ondorioz, eta bere bileretan bere eskumeneko gai guztiak tratatu eta erabaki ahal izango dira.

Bi.- Lehendakariak idatziz egingo du Artezkaritza Kontseiluaren bileretarako deialdia, eta deiturikoen artean Zuzendari-Gerentea bertan izango da eta honek hitzez baina botorik gabe parte hartuko du batzarraldietan.

Hiru.- Artezkaritza Kontseilua balioz eraturik geratuko da kideen erdia gehi bat biltzen direnean.

Asistentzia pertsonala izango da, inork ezingo ditu administratzaileak ordezkatu. Akordioak, bertan diren administratzaileen gehiengo sinplez hartuko dira, eta administratzaile bakoitzak boto bat izango du. Berdinketa kasuetan, lehendakariaren botoak erabakiko du.

Lau.- Artezkaritza Kontseiluak honako erabaki hauek hartzeko gutxienez agertutakoen aldeko botoen bi herenak beharko ditu:

- a) Jarduera zentro nagusi bat edo bere zati garrantzitsu bat itxi edo lekuz aldatzeko.
- b) Kooperatibaren murrizketa, hedapen edo aldaketa nabarmenak eragiteko.
- c) Kooperatibaren antolakuntzarako garrantzia handiko aldaketak sortzeko.
- d) Beste erakunde batzuekin, Kooperatiba edo bestelakoekin, Kooperatibarentzat etengabeko eta balio handiko elkarlana ekarriko duten harremanak sortzeko edo desegiteko.

Bost.-Lehendakariak eta idazkariak sinatuko duten bilerako aktan, eztabaidak era laburrean, erabakien testua eta botazioen emaitzak jasoko dira.

Sei.- Artezkaritza Kontseiluaren eskumenen baten etengabeko ordezkotza iraunkorra Batzorde Exekutiboari edo administratzaile ordezkariaren bati emateko, eta kargu horiek beteko dituzten kontseilukideak izendatzeko, Artezkaritza Kontseilua osatzen dutenen bi herenen aldeko botoa behar izango da eta ez dute eraginik izango Kooperatiben Erroldan inskribatu arte.

Art. 32 Artezkaritza Kontseiluko kideen ordainketa-

Administratzaile kargua betetzeak ez du emango ordainketarako biderik, baina beren kargua betetzeak eragingo dizkien gastuak titularrei konpentsatu egingo zaizkie.

Art. 33 -Lehendakariak eta Lehendakariordeak-

Lehendakaria euskalduna izango da eta Artezkaritza Kontseiluaren izenean esleiturik izango ditu elkartearen ordezkariak eta gobernua eta haren organoen lehendakariak.

Lehendakariak ordezkariak hau erabiltzea Artezkaritza Kontseiluak balioz hartutako erabakietara lotuko da.

Lehendakariordea euskalduna izango da eta Lehendakariak emango dizkion funtzio guztiak erabiliko ditu, urgentziazko kasuetan, gaixoaldian edo bete gabe uneetan harenak bere gain hartuz.

Art. 34 -Diruzainak-

Diruzaina euskalduna izango da eta kooperatibaren ekonomia eta finantzen egoera kontrolatuko ditu gertutik; berari dagokio batzorde ekonomikoaren bileren ardura eta une oro emango dio egoeraren berri Artezkaritza Kontseiluari nahiz Batzar Orokorrari.

Art. 35 -Idazkariak-

Idazkaria euskalduna izango da eta berari dagokio:

- a) Kooperatibaren liburuak, dokumentuak eta zigiluak zaintzea, kontabilitatekoak ezik.
- b) Bazkideen Erregistro Liburua eramatea.

- c) Batzar Orokorretako eta Artezkaritza Kontseiluko aktak idaztea.
- d) Korrespondentzia eta bere karguari dagokion beste antzeko funtzio oro eramatea.
- e) Kooperatibaren dokumentazioa euskaraz izan dadin bermatzea.

Art. 36 - Artezkaritza Kontseiluko kideen erantzukizuna-

Bat.- Administratzaileek ordezkari legal eta kudeatzaile ordenatu bati dagozkion arduraz eta ahaleginez beteko dituzte beren karguak, Legearen edo Estatutuen kontra edo beharrezko ardurarik gabe jokatzearen ondorioz sortzen dituzten kalteen erantzukizuna izanik.

Jokaera hori burutu edo erabaki kaltegarria hartu zuen organoko kide guztiak izango dira erantzule solidarioak, erabaki hori hartu edo exekutatu izanarekin zerikusirik ez dutela eta horren berririk ez zutela edo, ezagutu arren, kaltea gerta ez zedin ahal zuten guztia egin zutela edo, behintzat, berariaz horren aurka jarri zirela frogatzen dutenak izan ezik.

Jokaera edo erabaki kaltegarria Batzar Orokorrak hartu, baimendu edo berretsi izanak ez du erantzukizuna arinduko.

Bi.- Batzar Orokorrak erabili ahal izango du administratzaileen aurkako erantzukizun akzioa, gehiengo sinplez hartutako akordioaren bidez, nahiz eta eguneko gai-zerrendan ez ageri. Batzar Orokorrak ekintzaren egikaritzeari amore eman edo uko egin ahal izango dio edozein unetan. Erantzukizuneko ekintza sustatzeko erabakia hartzeak ukituriko administratzaileak automatikoki euren kargutik kentzea dakar.

Erabakia hartzen denetik hasi eta hiru hilabeteko epean Kooperatibak erantzukizuneko ekintza bete ez badu, edozein bazkidek egikaritu ahal izango du.

Hiru.- Erantzukizun hori sortarazi duten gertakarietatik edo hauen berri izan zenetik bi urtetara preskribituko da ekintza.

Lau.- Aurreko zenbakietan xedatutakoaz gain, bazkideen edo hirugarren batzuen interesak zuzenean kaltetzen dituzten administratzaileen jokaeren ondorioz haiei egoki lekizkiekeen banakako ekintzak salbu geratzen dira.

Bost.- Artezkaritza Kontseiluak hartutako erabakiak Legearen edo Estatutuen aurkakoak baldin badira edo bazkide bat edo besteren mesedetan edo beste batzuen mesedetan Kooperatibaren kaltetan hartu badira, ados ez dauden administratzaile edo Zaintza

Batzordeko kideek aurkatu ahal izango dituzte, akordioak hartu zirenetik hirurogei eguneko epearen barruan.

Erabaki baliogabeak edozein bazkidek aurkatu ahal izango ditu, eta erabaki baliogabegarriak elkarteko botoen ehuneko hamar ordezkaturako duten bazkideek, erabakiaren berri izan ondoko hirurogei eguneko epean, erabakia hartu zela urtebete ez bada igaro.

Art. 37 -Zuzendari-Gerenteaz. Izendapena eta utziera-

Bat.- Artezkaritza Kontseiluak Zuzendari-Gerente bat izendatu ahal izango du, kooperatibaren jardueraren kudeaketa profesionalerako. Era berean, arlo ekonomiko eta pedagogikoen kudeaketarako Zuzendaritza Gerentziala eta Pedagogikoa izendatu ahal izango ditu.

Zuzendaritza hauek pertsona bakarrekoa edo kolegiatuak izango dira, eta honen eskuduntza Artezkaritza Kontseiluak emango dizkion ahalmen eta botereetara hedatuko da, betiere honen zuzeneko kontrolpean.

Bi.- Zuzendari-Gerente edo Zuzendari eta administratzaile edo Zaintza Batzordeko kide izatea bateraezinekoak dira. Zuzendari-Gerente edo Zuzendariei, Artezkaritza Kontseiluarentzat ezarritako bateraezintasunak aplikatuko zaizkie.

Hiru.- Zuzendari-gerentearen izendapena eta utzaraztea, kausa edozein delarik ere Kooperatiba Erregistroan inskribatuko da.

Lau.- Artezkaritza Kontseiluaren ahalmena da Zuzendari-gerentearen izendapena eta baita kargua utzaraztea ere. Artezkaritza Kontseiluak itundutako epea bete baino lehen zuzendari-gerenteari kargua utzaraztea erabakiko balu, ekintza horren eta horretarako arrazoen berri, ospatuko den lehen Batzar Orokorrari eman beharko dio, xehetasun hori eguneko gai-zerrendan azalduz.

Bost.- Zuzendari-gerentea edo zuzendari izateko ez da derrigorrezkoa izango Kooperatibako bazkide izatea.

Art. 38 -Zuzendari-gerentearen betebeharrak eta erantzukizuna-

Bat.- Zuzendari-Gerenteak, bere karguari dagozkion betebeharrak eta Artezkaritza Kontseiluak erabakitako jarduera-plangintza orokorretatik jalgiko direnak edukiko ditu. Gutxienez hiru hilez behin aurkeztuko dio Artezkaritza Kontseiluari Kooperatibaren egoera ekonomiko eta sozialari buruzko txostena.

Bi.- Ekitaldi soziala itxi eta lehenengo hiru hilabeteen barruan, zuzendari-gerenteak administratzaileei aurkeztuko die gero Batzar Orokorrak azter dezan, entitatearen gestioaren azalpen-txosten bat, balantzea eta emaitzen kontua.

Epe horren beraren barruan, aipaturiko dokumentuen kopia bat Zaintza Batzordeari bidaliko zaio.

Hiru.- Zuzendari-gerenteak lehendakariari adierazi beharko dio, atzeratu gabe, bere ustez Artezkaritza Kontseiluaren batzarraldiak exijitzen duen gai oro, edo bere garrantziarengatik, hark jakin beharrekoa den oro.

Lau.- Artezkaritza Kontseiluarentzat ezarritako erantzukizunari buruzko arauak zuzendari-gerenteari aplikagarriak izango dira; eta gainera erantzukizun akzioa Artezkaritza Kontseiluak berak ere erabili ahal izango du, aurrez bertan dauden administratzaileetatik gehiengo sinpleak erabakirik eta Batzar Orokorrak hartutako erabaki sozialak aurkatzeko erabilitako epe berdinen barruan.

Bost.- 4/1993 Legearen 42. artikulua aipatzen dituen ezintasun eta debekuen kasutan aurkitzen direnak zuzendari-gerente ezin izango dira izan.

Hirugarren Sekzioa.-Zaintza Batzordeaz-

Art. 39 -Zaintza Batzordea-

Bat.- Estatutu hauen arabera bateraezintasun edo eskubide gabetze egoeran ez dauden bazkideen artetik, Batzar Orokorrak bozketa sekretuz hiru kide aukeratuko ditu Zaintza Batzorderako eta baita horien ordezkokoak ere, bi urteko epealdirako. Organo hau urtero partzialki berrituko da; lehen berrikuntzan bi partaide titular eta bi ordezko aldatuko dira, eta bigarrenean partaide titular bat eta ordezko bat, hurrenez hurren.

Bi.- Zaintza Batzordeko kideak berrautatuak izan daitezke, eta beraiei, erantzukizun, ezintasun, debeku, ordainsari eta inskripzioari dagokionez, Estatutu hauek eta legeak administratzaileentzat ezarritako arau berberak aplikatuko zaizkie.

Hiru.- Administratzaileek Zaintza Batzordeari hiruhilabetean behin gutxienez, Kooperatibako ekintzen eta aurreikusten den bilakaeraren berri eman beharko diote.

Lau.- Zaintza Batzordeak honako ahalmen hauek ditu:

- a) Batzar Orokorrari aurkeztu baino lehen, urteko kontuak ikuskatu eta horiei buruz eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz aginduzko txostena egitea, Kooperatibaren urteko kontuak ikuskatzen direnean izan ezik..

- b) Kooperatibaren Liburuak ikuskatzea.
- c) Batzar Orokorrera dei egitea, Kooperatibaren interesgarri dela iruditzen zaionean, baita Estatutu hauen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, biltzeko egindako eskaerari, administratzaileek ezentzun egiten badiote ere.
- d) Ordezkaritza agirien egokitasuna ikuskatu eta kalifikatzea eta, oro har, batzarretara sartzeko eskubideari buruzko zalantza edo gorabeherak erabakitzea.
- e) Elkartearen erabakiak aurkatzea, legez aurreikusitako kasuetan.
- f) Batzar Orokorra informatzea, honek aurkezten dizkion egoera edo arazoei buruz.
- g) Batzar Orokorraren beste organoetako kideak aukeratu eta izendatzeko prozesua zaintzea.
- h) Administratzailearen bat, ekainaren 24ko Euskadiko kooperatiben 4/1993 Legearen 42. artikulua aipatzen dituen ezintasun eta debekuen kasuren batean sarturik badago, hori kargugabetzea eta Batzar Orokorra egin bitartean, ezinbesteko neurriak hartzea.
- i) Eta legeak ematen dizkion gainerako egitekoak.

Zaintza Batzordeak bere eginkizuna bete ahal izateko beharrezko egiaztapen guztiak egiteko eskubidea du, eta lan hau bere kide bati edo batzuei eman diezaieke, edota adituen laguntza eskatu, beharrezkoa iruditzen bazaio.

Bost.- Zaintza Batzordeak, laugarren atalean eta legean ezarritako funtzioak beteko ditu, baina Kooperatiba kudeatzen edo hirugarrenen aurrean ordezkatzen inola ere ezin izango du zuzenean parte hartu. Ordezkatuko du, ordea, administrazio organoaren beraren edo honen edozein kideren aurrean, organoaren kontra aurkapen judizialak edo beronen kideekiko kontratu bukatzeak tartean daudenean.

IV. ATALA

ERREGIMEN EKONOMIKOAZ

Art. 40 -Irizpide orokorrak

Bat.- Ekonomia Erregimenaren arauketan, Kooperatibaren ondarearen egonkortasuna bermatzeko beharrezko mekanismoak ezarriko dira, bai bazkideen edo Kooperatibaren interesagatik, bai Kooperatibarekin harremanetan dauden hirugarrenen bermeaz.

Bi.- Kooperatibari eutsi eta, honela elkartearen zerbitzuak eta jarduerak bermatzeko, Batzar Orokorrak bazkideentzat aldizkako kuotak ezarri ahal izango ditu Estatutu hauen 7. artikuluko b) atalean aipatzen denaren arabera.

Art. 41 -Baltzu-kapitala.

Bat.- Baltzu-kapitala bazkideek egindako ondare izaerako ekarpenez osaturik egongo da, hauek derrigorrezkoak nahiz borondatezkoak izan.

Bi.- Bazkideen ekarpenak partaidetza izenduneko libreta edo liburuxka bidez egiaztatuko dira.

Art. 42. -Partaidetza bereziak-

Bat.- Partaidetza bereziak bazkideek edo hirugarrenek egindako ondare-ekarpenak dira, baina hauen itzulketarik ez da egiten gutxienez bost urte igaro arte eta, kreditu-lehentasunari dagokionez, hartzekodun arrunt guztien atzetik jartzen dira. Partaidetza hauen epe-betetzea Kooperatibaren likidazioa onetsi arte egiten ez bada, hartzekodunek aurrez ordaintzea onetsi dutenean ezik, baltzu-kapital bezala kontabilizatu ahal izango dira.

Bi.- Partaidetza bereziak kontu-ohartarazpen edo titulu bidez irudikatuko dira, balore higigarritzat har daitezkeelarik honela ezartzen bada jaulkipen akordioan. Edonola ere, balore higigarritzat hartzen direnean, berorien araubide juridikoa finantza-aktibo hauei buruzko araudiaren arabera izango da.

Hiru.- Partaidetza berezi hauen araubide zehatza askatasun osoz ezarriko da jaulkitzen direnean, baina bazkideei dagozkien eskubideak inola ere egotzi gabe.

Art. 43 -Derrigorrezko hasierako ekarpena-

Bat.- Bazkide izaera hartzeko derrigorrezko hasierako ekarpena 12,02 eurokoa izango da bazkide guraso, tutore eta adinez nagusi diren ikasleentzat eta baita bazkide laguntzaileentzat ere.

Bi.- Bazkideek oso osorik harpidetu beharko dute derrigorrezko hasierako ekarpena eta ikastolan onartuak izan diren unean gutxienez ehuneko berrogeita hamar ordaindu. Derrigorrezko hasierako ekarpena gehienez ere hiru hilabeteko epearen barruan ordainduko da.

Hiru.- Batzar Orokorrean erabakiko dira bazkide berrien derrigorrezko hasierako ekarpenak, baina exiji daitekeen kopurua ez da inoiz izango jadanik bazkideek ekarritakoa baino gehiago, kontsumoaren prezioen indize ofizialaren arabera diruaren balio-galtzearengatik legokiokoen zenbatekoan eguneraturik, eta ordaintzeko epeak ezin izango dira urte bete baino luzeagoak, ezta ere, aurreko Bi puntuan bazkideei emandakoak baino laburragoak.

Lau.- Batzar Orokorrak erabaki ahal izango du derrigorrezko ekarpen berrien exijentzia, zenbatekoa, epeak eta ordaintze-baldintzak finkatuz. Zabalkuntzarekin ados ez legokeen bazkideak baja eman ahal izango du eta hau bidezkoztat emango da.

Art. 44. -Bazkidearen derrigorrezko gutxieneko ekarpena-

Bazkide bakoitzak izaera hori mantendu ahal izateko, baltzu-kapitalera gutxieneko 6,02 euroko ekarpena guztiz ordainduta izan beharko du, eta bere ekarpenaren saldoak gutxiengo horretara iristen ez denean edo negatiboa denean, ekarpen osagarriak egitera behartuta egonik, eskaera egin zaionetik urtebeteko epearen barruan.

Art. 45. -Kooperatibaren gutxieneko kapitala-

Kooperatibaren gutxieneko kapitala hiru mila eurokoa (3.000 €) izango da, guztia harpideturik eta ordaindurik.

Art. 46 -Borondatezko ekarpenak-

Bat.- Batzar Orokorrak baltzu-kapitalera bazkideek egindako borondatezko ekarpenak onartzea erabaki ahal izango du, hauen baldintzak finkatuz.

Bi.- Administratzaileek une orotan bazkideek baltzu-kapitalari egindako borondatezko ekarpenak onartu ahal izango dituzte, baina horien ordainketa ez da

Batzar Orokorrak kapitalarentzat erabakitako azken borondatezko ekarpenetakoa edo, halakorik ezean, derrigorrezko ekarpenetakoa baino handiagoa izango.

Art. 47 -Ekarpenen interesa eta balantzeen eguneratzea

Bat.- Batzar Orokorrak erabaki ahal izango du, halakorik balitz, baltzu-kapitalera eginiko ekarpenen interesa, eta diruaren interes legala baino handiagoa ez da izango.

Bi.- Kooperatibaren balantzea Zuzenbide komuneko sozietateentzat ezarritako era berean eta mozkin berdinekin erregularizatu ahal izango da. Balantzearen erregularizazioaren ondorioz lortutako gainbalioa erabiliko da, lehenik eta behin, ekitaldi batean hala gehiagotan, izandako galerak konpentsatzeko eta gainerakoa, Batzar Orokorrak erabakia hartu eta zenbatekoak finkatuz, baltzu-kapitala eguneratzeko edo derrigorrezko nahiz banaezineko borondatezko erreserbak areagotzeko.

Art. 48 -Ekarpenen itzulpena

Bat.- Bazkide izaera galtzearen kasu guztietan, hura edo bere eskubidedunak ahalmenburu daude beren ekarpenen itzulpena galdatzeko.

Bi.- Derrigorrezko ekarpenez gain ken daitezkeen portzentaiak hauek izango dira:

- a) Egozpenarengatiko bajaren kasuan, %30 arte.
- b) Borondatezko baja justifikatu gabearen kasuan, %20 arte.
- c) Baja justifikatuaren edo heriotza-ondoriozko bajaren kasuan, ez da inolako kenketarik egin ahal izango

Bajaren kalifikazioa Artezkaritza Kontseiluaren erabakia izango da. Erabaki honen aurka errekurtoa egin ahal izango da Batzar Orokorraren aurrean, ondorengo hogeita hamar egunetako epearen barruan.

Hiru.- Lehen aipaturiko kenketen kalterik gabe, baja gertatuko den ekitaldiko balantzean agertuko diren galerak nolana ere konputatu egingo dira. Galera hauek, baja justifikatuaren kasuan ere konputatu egingo dira.

Lau.- Itzulpenerako epea, administratzaileek finkatuko dute kasu bakoitzean, elkartearen finantza-egoera eta bazkidearen familia eta ekonomia-inguruneak kontutan edukiz, eta bajaren dataz gero, bost urte baino gehiago ezingo da luzatu. Bazkidea hiltzen bada, kausadunei urtebeteko epearen barruan itzulpena egin beharko zaie.

Itzultzeke dauden diru-kopuruek ez dute egunerapenik izango baina bai diruaren legezko interesa jasotzeko eskubidea.

Art. 49 -Sarrera kuotak-

Bat.- Batzar Orokorrak erabakiko ditu, urte bakoitzerako, sarrera kuotak, eta hauek ez dute baltzu-kapitala osatuko eta ez dira itzulgarriak izango, baizik eta Derrigorrezko Erreserba-Fondoaren parte izatera pasako dira, kide diren bazkide taldearen arabera, desberdinak izan daitezkeelarik. Bazkide berrien sarrera-kuotak, Estatutu hauetan ekarpenentzat adieraziriko irizpide beraren arabera eguneratuko dira.

Bi.- Sarrera-kuotak, une bakoitzean indarrean dagoen derrigorrezko hasierako ekarpenaren %25a baino gehiago ez dira izango.

Hiru.- Urtero Batzar Orokorrak bazkide berrien sarrera-kuotaren eta derrigorrezko hasierako ekarpenaren zenbatekoak finkatuko ditu.

Art. 50 -Aldizkako kuotak-

Ikastolaren behar ekonomiko-finantzarien ardura hartu eta horrela zerbitzu eta jarduera sozialak betetzeko helburutan, Batzar Orokorrak itzulgarriak izango ez diren eta baltzu-kapitala osatuko ez duten aldizkako kuotak ezarri ahal izango ditu, partaide diren taldearen arabera bazkideentzat desberdinak izan daitezkeelarik.

Art. 51 -Zerbitzuak eskuratzeko ordainketak-

Kooperatibaren zerbitzuak eskuratzeko ordainketek baltzu-kapitala ez dute osatzen eta Kooperatibarekin finkatu eta kontrataturiko baldintzetara loturik daude.

Art. 52 -Ekarpenen eskualdaketa-

Ekarpen kooperatiboak eskualdagarriak dira:

- a) Bizien arteko egintzen bidez, bazkideen artean eta hiruhilabeteko epean bazkide egiteko hitza ematen dutenen artean, aldez aurretik Artezkaritza Kontseiluari eskatuz eta honek onartuz gero, eskualdaketa partziala edo erabatekoa izan daitekeelarik, azken kasu honetan bazkide izaera galtzen delarik.
Derrigorrezko ekarpena eta bazkide berrien sarrera-kuota gauzatzeko parte sozialen transferentziarik ez da onartuko.
- b) Heriotzagatik oinordetzagatik, eskubidedunentzat izango dira bazkide izan eta horrela eskatzen badute. Bestela, lehenik eta behin bazkide egin beharko dute ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legearen 20. artikulua

dioenaren arabera. Bazkide izateko onarpena heriotza gertatu ondoko hiru hilabeteko epean eskatu beharko da.

Bestela, elkarteari egindako ekarpenari dagokion diru-kopurua jasotzeko eskubidea izango dute, Estatutu hauetako 48. artikuluan adierazten denaren arabera.

Art. 53 -Soberakin garbiak zehaztea-

Bat.- Soberakin garbiak zein diren zehazteko, merkataritza-elkarteei ezarritako arau eta irizpideak aplikatuko dira.

Bi.- Dena dela, soberakin garbiak zehazterakoan, honako hauek partida kengarritzat hartuko dira:

- a) Kooperatibaren gestiorako emandako ondasunen zenbatekoa, merkatuko salneurrien batezbesteko prezioetan.
- b) Baltzu-kapitalari egindako ekarpenengatik, partehartze bereziengatik eta baltzu-kapitalarekin batu ez diren laguntza eta finantzaketengatik zordunduriko interesak, ekainaren 29ko 1/2000 Legearen 57. artikuluan arautzen denaren arabera

Art. 54 -Soberakinak banatzea.

Bat.- Urtero, behin aurreko ekitaldietako galerak konpentsatuz gero eta bidezko zergak ordainduz gero, soberakin erabilgarrietatik, gutxienez ehuneko hogeita hamarra Derrigorrezko Erreserba Fondora eta Heziketa eta Kooperatiba-Sustapenerako Fondora bideratuko da, ehuneko hamarra Heziketa eta Kooperatiba-Sustapenerako Fondora eta ehuneko hogeia Derrigorrezko Erreserba Fondora. Derrigorrezko Erreserba Fondoa baltzu-kapitalaren erdiaren pareko izatera iristen ez den artean, Heziketa eta Kooperatiba-Sustapenerako Fondorako ezarritako gutxieneko diru-kopurua erdira murriztu ahal izango da.

Bi.- Derrigorrezko Erreserba Fondoa bazkideen artean bana ezinekoa da. Bazkideen baja kasuetan derrigorrezko ekarpenen gaineko kenketak, sarrera kuotak eta aktibo ibilgetuko elementuak besterenganatzean plusbaliotik sortutako irabaziak, nahitaez pasako dira Fondo honetara.

Hiru.- Heziketa eta Sustapenerako Fondoa bahitu ezinekoa da, eta bertara, bat atalean aurreikusitako zuzkidurez gain, diziplina bidez bazkideei ezarriko zaizkien isun eta gainerako diru-zigorrak pasako dira.

Art. 55 -Heziketa eta Kooperatiba-Sustapenerako Fondoaren aplikazioa-

Heziketa eta Kooperatiba-Sustapenerako Fondoaren aplikazioaren oinarritzko lerroak Batzar Orokorrak finkatuko ditu eta ondorengo helburuetarikoren bat betetzen duten jardueretarako erabiliko da:

- a) Bertako bazkide eta langileak Kooperatibaren printzipio eta baloreetan hezteko eta elkarlanetan gaitzeko.
- b) Kooperatiben arteko harremanak sustatzeko, bigarren mailako kooperatibetan edo bateratze-kooperatibetan parte hartzeagatik sorturiko gastuak eta Kooperatiben arteko laguntza, sustapen, zuzendaritza bateratu edo lankidetzak-ekintzetarako sortutako erakundeetan parte hartzeko, gastuak barne.
- c) Kooperatibak diharduen gizarte-ingurunean eta gizartean orokorrean, kultura, lanbide eta laguntza bideak bultzatzeko eta Kooperatiben ezaugarriak zabaltzeko.

Art. 56 -Soberakin garbi erabilgarrien aplikazioa-

Bat.- Soberakin erabilgarriak, Derrigorrezko Fondoak hornitu ondoren, Erreserben hobekuntzara eta/edo Borondatezko Erreserbak eratzera aplikatuko dira, Batzar Orokorrak ekitaldi bakoitzean erabakitakoaren arabera, halaber, haien izaera banaezina ere ezarri ahal izango du eta, kasu honetan, Erreserba Fondo berezia deituko zaio.

Art. 57 -Galeren egozpena edo inputazioa-

Bat.- Galerak kontu berezi batera egotz daitezke, etorkizuneko emaitza positiboen kargura amortizatzeke, gehienez ere bost urteko epearen barruan.

Bi.- Galeren egozketa legezko mugen barruan, ondorengo arauei jarraituz egingo da:

- a) Lehenik, Borondatezko Erreserba Fondoetara egotziko dira.
- b) Bigarren, erabilgarri dauden Egunerapen Fondoetara egotziko dira.
- c) Hirugarren, Derrigorrezko Erreserba Fondora egotziko dira, beti ere, legeriak gehienez onartzen dituen mugen barnean.

Egozteke gelditzen diren gainerako galerak bazkideen artean banatuko dira. a), b) eta c) sailetatik at geratu den konpentsatu gabeko zenbatekoa bazkideei egotziko zaie beren kooperatiba-jardunari proportzionalki, honako banaketa eta parametroak aintzat hartuz bazkide bakoitzari dagokion galera kalkulatzeko:

- Galeren % 100a bazkide erabiltzaileei egotziko zaie.
- Bazkide erabiltzaileen partaidetza neurtuko duen modulua bazkide horietako bakoitzak ekitaldian matrikulatuta duen ikasle kopurua izango da.

V ATALA

LIBURUEZ ETA KONTABILITATEAZ

Art. 58 -Elkartearen agiriak-

Bat.- Kooperatibak honako liburuak eramango ditu behar bezala eta eguneratuak:

- a) Bazkide-erregistro liburua.
- b) Baltzu-kapitalera egindako Ekarpenen Erregistro liburua.
- c) Batzar Orokor eta Artezkaritza Kontseiluaren Akta-liburuak, eta halaber Zaintza Batzordearen Akta-liburua.
- d) Kontabilitate liburua, eta hauetarik beharrezkoak izango dira Inbentario, Balantze eta Egunkari liburua.

Liburu hauek guztiak Euskadiko Kooperatiben Erroldak gaitu edo legeztatuko ditu.

Bi- Kontabilitate idazpenak eta oharpenak edozein prozedura egokiz egingo dira, mekanizaturik hala ez, Obligaziozko Liburuaren eta beren beharrezko legeztapenaren baliokoa kronologikoki eratzeko bidea bermatuko duelarik.

Hiru.- Kooperatibak gutxienez bost urtetako epean zehar gordeko ditu bere jarduerari dagozkion liburuak, korrespondentzia, dokumentuak eta frogagiriak, horri buruz xedapen orokorrek edo bereziek ezar dezaketenen kalterik gabe.

Art. 59 -Kontabilitatea-

Kooperatibak bere jarduerari egokitutako kontabilitatea eramango du partida bikoitzezko sistemaz, Merkatal Kodean eta gainerako legezko xedapen aplikagarrietan agintzen denaren arabera.

VI ATALA

DESEGITEA ETA KITAPENA

Art. 60 -Desegitea-

Bat.- Kooperatiba desegiteko kausak izango dira:

- a) Horretarako berariaz deitutako Batzar Orokorraren erabakia. Batzarrerako deialdia egiterakoan batzarkide bakoitzari bidali beharko zaio desegite proposamena, arrazoitua izan beharko delarik, eta burutu dataz aurreko hogeita hamar egunen barruan itxitako Balantzea erantsiko zaio.
- b) Hamabi hilabetez baino luzeago mantendu izana, Kooperatiba eraikitzeke legez beharrezkoa den bazkide kopurua baino txikiagora murrizturiko zenbatekoa.
- c) Bateratzea edo guztizko bereizketa.
- d) Elkartearen xedea betetzea, xede soziala lortzeko sorturiko ezinezkotasuna, edo organo sozialen funtzionamenduaren gelditzea.
- e) Elkartearen kitapen-fasea zabaltzen duen ebazpen judizialak dakarren Elkartea desegitearen deklarazioa, lehiaketa egoeran dagoenean, uztaileko 9ko 22/2003 Legeak aurreikusten duenaren arabera.
- f) Baltzu-kapitala murriztea, estatutuetan ezartzen den gutxienezko behera, eta hamabi hilabetetan gainditzen ez bada gutxienezko diru kopuru hori.
- g) 4/1993 Legean edo Estatutu hauetan ezarritako beste edozein arrazoi.

Bi.- Desegite erabakiak gehiengo arruntaz hartuko dira, aurreko ataleko a) eta c) puntuetako kasuetan izan ezik, hauetarako gehiengoa gutxienez bi hereneko izango delarik.

Hiru.- Horrelakoetan, administratzaileek Batzar Orokorrerako deialdia egingo dute bi hilabeteren epearen barruan. Zaintza Batzordeak edo beste edozein bazkidek eska diezaiekete administratzaileei deialdia egin dezaten.

Desegite akordioa edo hala adierazten duen ebazpen judiziala, Kooperatiba Erregistroan inskribatzeaz gainera, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian eta Gipuzkoako zabalkunde handiko egunkari batean argitaratuko dira.

Art. 61 -Kitapena-

Bat.- Bateratze edo guztizko bereizketa kasuetan izan ezik, Kooperatiba deseginez gero, Kooperatiba desegitea erabaki duen Batzar Orokorrak edo horretarako deitzen den Batzarrak, hiru bazkide kitatzaile izendatuko ditu.

Denboraldi honetan, Kooperatibaren izenari "kitapen-aldian" hitzak erantsiko zaizkio.

Kitatzaileen izendapena Kooperatiba Erregistroan inskribatu beharko da.

Batzar Orokorrak, Kooperatibaren desegite unetik, bi hilabete igaroz gero kitatzaileak izendatu gabe, administratzaileek lehen instantziako epaileari kitatzaileak izenda ditzala eskatu beharko diote, beroriek Kooperatibaren bazkide ez direnak izan daitezkeelarik.

Edozein interesdunak ere aurkez dezake horrelako eskaera, Kooperatiba Legearen 88.3 artikulua dioenaren arabera.

Kitatzaileek taldekide moduan jardun beharko dute, euren akordioak akta-liburu batean jasoaz.

Bi.- Kitapen aldian zehar, Batzar Orokorrez diren lege eta nahiz Estatutu arauak beteko dira. Kitatzaileek egingo dituzte Batzar Orokorretarako deialdiak, beraiek izango dira Batzarretako buru eta bertan adieraziko dute kitapena nola doan, denon onerako erabakiak har daitezen.

Hiru.- Kitatzaileek kitapena burutzearren behar adina egiteko ahalmena izango dute eta Kooperatibaren izenean jardungo dute, bai auzitegietan bai beste edonon, eta besteekiko, elkarteak, lehengo administratzaileek egiten zuten hein berean behartzen dute.

Egin beharko dute:

- a) Azken Balantzea egin, Kooperatibaren azken Ondare Netoa edo baltzu-ondarearen osaketa eta zenbatekoa garbi azalduz, eta era berean, hala balegokio, banaketa proposamena, Batzar Orokorrak onar dezan.
- b) Egungo legediak ematen dizkien eginbehar guztiak.

Art. 62. -Erroldan egoteari amaiera ematea-

Kitapen aldia amaiturik eta baltzu-ondasunak banatu ondoren, kitatzaileek Kooperatibari dagozkion idazpenak deusezta dezatela eskatuko diete Kooperatiben Erroldako arduradunei, azkeneko balantzea eta kitapen urratsak biltzen dituen eskrituraren bidez, eta Kooperatibari dagozkion liburu eta agiriak bertan utziko dituzte.

Art. 63 -Kooperatibaren lehiaketa egoera-

Uztaileko 9ko 22/2003 Legea Kooperatibari aplikagarria da.

Art. 64 -Gatazkak eta arbitraia-

Bat.- Kooperatiba mailako Elkartea eta bazkideen artean, eta bazkideen artean sor daitezkeen arazo gatazkatsuak, kitapena aldikoak barne, konponbideak agortu eta gero, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiaren arbitraiapean ezarriko dira, beti ere organo hau eskudun den gaietan. Arbitraia honen ondoriozko laudoa ontzat hartzeko aldeek berariazko konpromisoa hartuko dute.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.- IKASTOLAREN IRAKASLE ETA EZ-IRAKASLE DIREN LANGILEEN ORDAINSARIEN MUGAK.

Kooperatibako irakasle eta ez-irakasle diren soldatapeko langileen ordainsariak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ikastolen Lan Hitzarmenak, jarduera eta kategoria profesionalaren arabera, finkatzen dituen ordainsarien ehuneko ehun eta berrogeita hamarra ezin gainditu izango dute.